

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Alkatearen ordainsaria eta korporazioko kideen kalte ordainak

Udalbatzak, 2019ko uztailaren 3ko osoko bilkura berezian, erabaki zuen alkatearen kargua lanaldi partzialeko dedikazioan eta ordainduta egingo dela, hain zuzen, gutxienez hogeita hiru ordu astean, lanaldiaren bi heren, 2019ko irailaren 1etik ondorioekin, urteko 21.186,48 euroko ordainsari gordinarekin (hamalau lansaritan ordainduta). Halaber, alta emango zaio Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean.

Korporazioko kideek ere, parte hartzen duten talde organoetara joateagatik eta kalte ordainketetan, karguan jardutean eragindako gastuak jasoko dituzte, hain zuzen, 40,00 euro joateagatik eta 0,30 euro/kilometro, joan-etorriak egiteko.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Erdoña, 2019ko uztailaren 22a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO